

# Sekretupean komunikatzeko eskubide konstituzionalaren etendura: terrorismo kasuan

ARRATIBEL, Josean

Eusko Jaurlaritzako Letratua  
Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila  
Sancho el Sabio, 35  
20010 Donostia

BIBLID [1137-1951 (1996), 0: 61-67]

1. Sarrera 2. 4/1988 Lege Organikoaren 579.4 artikularen azterketa: 2.1. Administrazioaren behaketaren xedea 2.2. Nori Zuzenduta 2.3. Eskuhartze Agindua 2.4. Larrialditasuna 2.5. Eskuhartzeagatik jakinarazpenak eta dagozkion zioak 2.6. Denbora 3. 4/1988 Lege Organikoa neurritz gabe erabiltzeagatik erantzukizun penala: 3.1 Arautegia 3.1. Doktrina 3.2. Jurisprudentzia.

## 1. Sarrera

Prebentziozko atxilotze arautegiarekin eta bizilekuaren bortxaezintasun eskubidearekin gertatzen den bezala, sekretupean komunikatzeko eskubidea eten daiteke terrorismo kasuetan, Espainiako Konstituzioko (EK.) 55.2 atalak dioenez<sup>1</sup>. EK.ko 18.3 atalak bermatzen duen oinarritzko eskubidea, hau da, sekretupean komunikatzekoa, baldintza batzuk bete ondoren, herritarroi aldi baterako eten dakiguke<sup>2</sup>.

Eskubide horren aldi baterako gabetze edo etendura aurrera eramateko baldintzak, erak eta kasuak 4/1988 Lege Organikoan finkatuta daude,

bere 579. atalean, alegia<sup>3</sup>. Aipaturiko atalak hauxe dio:

1. *"Podrá el juez acordar la detención de la correspondencia privada, postal y telegráfica que el procesado remitiera o recibiera y su apertura y examen, si hubiere indicios de obtener por estos medios el descubrimiento o la comprobación de algún hecho o circunstancia importante de la causa.*

2. *Asimismo, el juez podrá acordar, en resolución motivada, la intervención de las comunicaciones telefónicas del procesado, si hubiere indicios de obtener por estos medios el descubrimiento o la comprobación de algún hecho o circunstancia importante de la causa.*

3. *De igual forma, el juez podrá acordar, en resolución motivada, por un plazo de hasta tres meses, prorrogable por iguales periodos, la observación de las comunicaciones postales, telegráficas o telefónicas de las personas sobre las que existan indicios de responsabilidad criminal, así como de las comunicaciones de las que*

1. EK.ko 55.2 atalak hauxe dio: "Una ley orgánica podrá determinar la forma y los casos en que, de forma individual y con la necesaria intervención judicial y el adecuado control parlamentario, los derechos reconocidos en los artículos 17, apartado 2 y 18 apartados 2 y 3, pueden ser suspendidos para personas determinadas, en relación con las investigaciones correspondientes a la actuación de bandas armadas o elementos terroristas".

2. EK.ko 18.3 atalak hauxe dio: "Se garantiza el secreto de las comunicaciones y, en especial, de las postales, telegráficas y telefónicas, salvo resolución judicial".

3. Juzkapen Kriminalararen Erreformari buruzko 44/1988 Lege Organikoa, maiatzaren 25 ekoa. ( B.O.E. 126 zk. maiatzaren 26koa.)